

Antsi bat entzun da

Deia, 1990-05-23.

Euskaraz mundo honetan daramatzen urteak, eta ez dugu euskaldunok egunkari batean bidaiatzen jartzeko kemenik izan. Joan den gerratean egindako *Eguna* aipatzen da: eta egia da, marka polita izan zen hura. Ajuriagerra jaunak bultza eta garai hartako kazetariak egitea lortu zutena ez du gutxi, baina harrez gero mende erdia joan da, bitartean erdarazkoak ugaltu dira, eta gureari ekin gabe gaztelerazkoak ari gara gizentzen, tiradak gora eta gora eta ez dugu geure portaera honekin eskasia handia besterik erakutsi.

Badakigu egunkari bat euskaraz sortzea garesia dela, eta sortutakoari iraun araztea oraindik gehiago; baina hau ukatu gabe, ordea, ez ote da gero, horrez gain geure betiko alferkeria aitzeki? Alferrak, euskaraganako diot, ez bestetako, alajaina!, mugitzen gara hor zehar bakoitzak berea duena edo nahi duena lortu nahiean. Baina euskara dugu, bai hizketan, bai irakurtzen, bai idazten jartzeko alferkeria hau. Oraindik jaiotzaz markatutako lotsa gurekin bagenu bezala. Ez baita, sarri aipatzen den bezala, diru arazo hutsa; dirua, barra-barra dabil gure herrian zenbait gauzetarako; beharrak, asko, dudarik gabe, asko baititugu hemen!, baina egunkari batean inbertitzea baina errazago ari da gertatzen herri honen etorkizunerako balio gutxiago duten gauza batzutan jartzea.

Bakoitzak berea jakingo du ondoen, eta gure herriko administralgoan ari direnei neurriak hartzeko ez naiz ni inor.

Errespetua zor diet, ez besterik.

Baina kasu honetan nire alorra denez gero, esperantza badugu gure ardua ulertuko dutela. Beharrezkoa dela arraultza batzuk euskararen kabian jartzea; sorrera honek bai baitu etorkizunik, alafede!; olatu berri honek bultza bai dezake untzia kaiera, ez baita hondarretan emeki-faltsoki hondartuko.

Beste irudiko bat erabili, euskara dagoen egoeran, har dezagun, adarretatik har oraingoan, zezenari bezala, plazara jagi arazi eta bere gisa hiltzen utzi beharrean... Beraz, badakizu, zezen gutxi hiltzen da berez zezen plazan norbaitek banderilez eta ezpataz akabatzen ez badu!, eta hor zezenaren begietatik anketaraino eta hauetan berez bezain trobukatu eta erotzen da belauniko, odol-izerdiz blai, hondarretara, eta badaezpada ere beste norbaitek azken kolpea muinetan eman eta zapla!, musikaren gorakadarekin batera...

Musika hori zezenak entzuten ote duen galdetu zidan behin atzerritar batek gupitetsita.

Ez nekiela esan nion.

Ez baitakit.

Hizkuntzak hil aurretik inguruko musika jaia entzuten duen ez dakit. Nik, neuk, dakidana da, euskara plaza erdian utzi eta berez bezala, hiltzen bazaigu, gure herriaren memorian antsi luze ikaragarri bat geratuko dela betiko gure belarrietan.